

Erabakitze eskubidea udal mailakoa ere bada

Azaroaren 23an erreferendumerara deituta daude Usansoloko herritarrek. Oraingoz Galdakaoko auzoa dena udal bihurtzea gura duten esan beharko dute. Eraitza ez da juridikoki loteslea izango, baina bai politikoki esanguratsua. 2012tik udal berrien sorrera galarazten duen araua aldatzeko prest agertu da Bizkaiko Foru Aldundia, Usansolok udala izateko borondatea adierazten badu. 1983tik Euskal Herrian sortutako 36.a litzateke. Bitartean, zer gertatuko ote da Igeldon?

| UNAI BREA |



USANSOLO HERRIA

WIKIPEDIARI SINESTERA, Euskal Herriak 685 udalerri ditu. Horietatik 35 azken hiru hamarkadetan sortuak dira, orrialdea pasatuta agertuko zaizuen koadroak xehe azaltzen duenez. Oso litekeena da Bizkaiko Usansolo, gaurgaurkoz Galdakaoko auzoa dena, zerrendara gehitzea datorren urtean, edo agian hurrengoan. Prozedura hauek, badakizue, denbora behar dute.

Erratzeko beldurrik gabe esan daiteke usansolotar gehienek borondatea, azaroaren 23ko kontsulta ez-loteslean berretsi beharko dutena,

Igeldotar eta usansolotarren arteko elkartasun ekitaldia, 2013an. Argazkian, bi herrietako ordezkariak ageri dira Igeldoko udaletxe bihurtu litekeen eraikineko balkoian.

udal bat sortzea dela. Horren froga argia da Usansolo Herria plataformak aise irabazi zituela azken udal hauteskundeak Usansoloko distrituan. Haien hauteskunde programak hitz bakarra zuen ardatz: desanexioa.

Herritarren nahia ez da nahikoa ordea, bestela aspaldi izango zuen Usansolok bere udaltxea. Baina oraingoa, badirudi hainbat urtez segregazioa gauzatzea galarazi duten oztopoak desagertzear direla, Bizkai Buru Batzarreko Itxaso Atutxak, Bizkaiko ahalguz nagusi Jose Luis Bilbao eta Galdakaoko alkate Ibon Uribe

jeltzaleek azken hilabeteetan agertutako prestasuna ikusirik. Galdakaoko Udalak eta Usansolo Herria plataformak prozedurari buruz dituzten desadostasun nabarmenek nekez eragotziko dute Bizkaia beste udal bat edukitzea, aipatutako hirurek hitzari eusten badiote.

Behin Usansolo Galdakaotik bereizita, oraintxe epaile baten esku dagoen Igeldoko auziari irtenbidea ematea besterik ez litzateke faltako Euskal Herriko udal mapa ixteko, gora-goko erakundeetatik administrazio egituraren erreforma sakonen bat etorri arte behintzat —baliteke luze gabe hala gertatzea Frantziako Estatuan, baina hori beste historia bat da—.

1980ko hamarkadako desanexio eztanda

1970eko hamarkadaren erdian sortu zen Desanexioaren Aldeko Herrien Koordinadora, batez ere Erandioko zenbait herritarrek bultzatuta. Mugimendu haren sortzaileetako batek, Txetxu Aurrekoetxeak, adierazi digunez, koordinadoraren sustatzaile nagusiak Txorierrri bailara bizkaitarreko herriak izan ziren (Erandio, Loiu, Derio, Sondika eta Zamudio), eta haien ekimenari esker batu ziren Bizkaiko eta Gipuzkoako beste herri batzuk: Iurreta, Mendaro, Lasarte...

Txorierrriko bost herriak frankismoan behartu zituzten Bilbon txertatzera. Horretarako bi arrazoi zituen diktadurak, Aurrekoetxearen esanetan. Bata, ideologikoa: Espainia Handiak hiri handiak behar zituen. Beste arrazoiak handitasunarekin zerikusia du halaber, baina pro-saikoagoa da: hirigintza-planak gauzatzeko lurra behar zen. Bilbokoa ez zen Euskal Herriko kasu bakarra izan, baina bai esanguratsua.

Desanexioen aldeko koordinadorak helburua lortu zuen hein handi batean, bistan dena. 1982ko abenduaren 22an Eusko Jaurlaritzak bost udalerriok Bilbotik desanexionatzeko dekretua sinatu zuen. Jaurlaritzak emandako era horretako dekretu bakarra izan zen; handik aurrerako guztiak aldundien eskutik etorri dira. Bide batez esan dezagun desanexio masibo hori ez zela bakarra izan; 1987an, lau herri aldi berean bereizi ziren Gernikaz. Historia Bilbokoaren berdintsua da. Beste askoren desanexioa banaka etorri zen, eta batzuen kasuan udala sortu bai baina ezin esan desanexioa egon zenik. Kontuak kontu, 30 udalerri sortu ziren Euskal Herrian 1983 eta 1993 bitartean.

Arabaren bat ere ez, Iparraldean bat

Azpitarratzekoa da aipatutako denbora tartean, eta gerora ere, ez dela egon desanexio edo segregaziorik Araban, eta Ipar Euskal Herrian



USANSOLO HERRIA

Usansoloko bazter eta balkoiak desanexioaren aldeko pankartez bete dira azaroaren 23ko galdeketa hurbildu ahala. "Kontsulta pribatua da, baina guztiz legezkoa eta guztiz zilegi", dio Usansolo Herria plataformak.

bakarra izan dela. Ez bereizketarik, ezta eskaririk ere. Iparraldeaz den bezainbatean, Frantziako Estatuak duen arazo bat hartu behar da kontuan: udal inflazio izugarria. Europar Batasun osoko udalen ia erdia Frantzia dago (36.000 inguru!), eta Parisen ez du gehiago nahi. Ez dago udalerri berriak sortzea debekatzen duen legerik, baina bai balizko eskaerarik printzipio orokor bat, zeinaren aplikazioa prefetei baitagokien: eskariak ezetz erantzutea.

Bizkaiko eta Gipuzkoako desanexio olatua Arabara iritsi ez izanak badu bere azalpena, Iñaki Moro EHUKo Geografia irakasleak dioskunez: "EAEko hiru lurraldeetan Araba da udalen lur komunal gehien mantendu dituen; horrek ahalbidetu du entitate txikiak kudeatzeko gaitasunari eutsi ahal izatea hainbat arlotan".

Beharrik ez, nahirik ez. Denboran oso atzera egin gabe, Eskoziako eta Kataluniako kasuek erakutsi dute burujabetzari buruzko eztabaidan gero eta garrantzi handiagoa duela nork berea kudeatzeko eskubideak, ohiko nortasun elementuekin batera. Hala bada nazio osoen kasuan, zer esanik ez udal mailan. Usansolon bezala Igeldon, "metropoliak" eskaintzen dien arreta eskasa da zutabe nagusietakoa bereizi nahi dutenen diskurtsoan. Eta hala ere desanexio prozesuetan nortasun osagaia egon badago, distantzia fisikoak edo tradizio historikoak emana, sarritan biek.

Bizkaian eta Gipuzkoan indarrean dauden udalen sorrerari buruzko arauak beren-beregi euren desanexio nahia gauzatu ez dadin sortuak direla uste dute Igeldon eta Usansolon

1983an hasitakoa burutzeko urrats bi falta

1980ko hamarkadako desanexio eta segregazio oldeak bakea ekarriko zukeen Euskal Herriko udal banaketari dagokionez, baldin eta hiru kasu ez balira geratu konpontzeke: Igeldo, Usansolo eta Itziar. Hirugarrena bideratu egin da azkenik, itziartarrek eurek, Debako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak jarritako legez gogaituta, amore eman zutelako 2000ko



ITXAS AURRE



hamarkadaren hasieran. Udala lortzeko nahia alboratuta, Debaren barruan udal-auzo bihurtzeko borrokari ekin zioten duela urte batzuk, eta hori ere denen gustukoa ez izan arren badi-rudi helburua gauzatzear dela.

Usansolo eta Igeldoko gatazkek gaurdaino iraun izana ulertzeko, berriz, ezinbestekoa da legedian izandako zenbait aldaketa azaltzea. EAEn, aldundiek dute eskumena udal berrien sorrerari dagokionez. Euri askotxo bota du 1983ko lehen desanexio haietatik, eta hainbat foru arau sortu dira segregazioak –“desanexio” hitza ez duzu aurkituko arauotan– burutzeko baldintzak ezartze aldera. Usansolon eta Igeldon udala sortu nahian dabilen taldeak kexu dira bai Bizkaian bai Gipuzkoan nahi hori oztopatzeko *ad hoc* sortuak direla arauak.

Igeldoko Itxas Aurre elkarteko Jose Ignacio Galparsorok gogorarazi digunez, 1990ean hasi ziren bertako hainbat herritar Donostiatik bereizteko aukera aztertzen. Lau urte geroago galdeketa egin zuten, eta gehiengo udala sortzearen alde agertu zen. “Handik gutxira foru arau berria egin zuten, preseski Igeldoren kontra, inola ere bete ezin ditugun bi baldintza dituen: bata, gutxienez 2.500 biztanle izatea [1.000 inguru ditu Igeldok], eta bestea jatorrizko udalarekin adostea; baina Donostiako Udalak sekula ez du igeldotarron nahia onartu nahi izan”. Gaur egun indarrean dagoen araua 2003koa da, eta bi baldintza horiek mantentzen ditu.

1995ean, Igeldo bereiztearen aldekoek argudiatu zuten euren prozedura araua sortu baino lehen hasi zela, eta beraz haren aurreko baldintzak ezarri behar zitzaizkiola. Urteotan arrazoia eman diete bai EAEko Auzitegi Gorenak bai Madrilgoak, baina horrek ez die balio izan: 2010ean, azkenik, Aldundiak dekretuz ezetsi zuen desanexio eskaera, 1986an indarrean zeuden baldintzak kontuan hartuta.

2013ko azaroaren 10ean egindako galdeketa, Igeldo udal bihurtzearen alde bozkatu zuten parte hartu zutenen %61ek. Emaitzari men eginez, Gipuzkoako Aldundiak udal sorrera dekretua eman zuen, baina otsailetik indargabetuta dago, Donostiako Udaleko osoko bilkurak aurkeztutako helegitea dela eta.

Bizkaian erabateko debekua 2012tik

2012ra arte, oso antzekoak ziren Gipuzkoako eta Bizkaiko foru araudiak, 2.500 biztanleen baldintza barne. Baina urte hartan, Gernikako Batzar Nagusiek arau berria onartu zuten, oraindik indarrean dagoena. Arau horrek debekatu egiten du Bizkaian udal gehiago sortzea. Usansolo Herria (UH) plataformako Monika Menak uste du aldaketaren helburua oso zehatza zela, “Bizkaian abian dagoen desanexio prozesu bakarra gurea da eta”. UH saiatu egin zen arauak xedapen iragankor bat jaso zezan, zeinaren arabera epe bat zabalduko baitzen lehendik martxan zeuden prozedurak burutzeko, baina ez zuten helburua lortu.

Arau hori egongo ez balitz, edo aipatutako xedapena erantsiko balitzaio, Usansolok aukera bikaina edukiko luke Galdakaotik bereizteko, aurreko foru arauak ezarritako baldintza guztiak betetzen baititu. 5.000 biztanle inguru dauzka, Galdakaoko erdigunetik behar bezain urrun dago eta ekonomikoki bideragarria da berriki EHUk egindako azterketa baten arabera. Izan ere, harrigarriena da oraindik udal ez izatea, kontuan hartuta 1988an hasi zirela helburu hori lortzeko ahaleginak.

Menak azaldu digunez, 1990eko hamarkadaren hasieran hiru azterketa egin ziren Usansolo independentearen bideragarritasuna neurtzeko. Bi aldekoak izan ziren, baina hirugarrenaren ezezkoak prozesu osoa geldiarazi zuen. Azterketa negatibo hura EAJrekin harreman estua daukan abokatu bulego batek egin zuen.

Ondorioa hamabost urteko *impassea* izan zen. 2011n, desanexio nahia indarberritu eta UH plataforman gorpuztu zen. Udal hauteskundeetan ezusteko emaitza lortu zuten: zinegotzi bi eta gehiengo zabala Usansolon. Hurrengo urtean, udal berriak eratzeke debekua ezarri zuen Aldundiak. Une honetan, UHk

1983tik Euskal Herrian sortutako udalak

1983KO URTARRILAREN 1EAN Bilboko bost auzo desanexionatu zirenetik, beste 30 udal sortu dira Euskal Herrian, ia denak 80ko hamarkadan eta 90ekoaren hasieran. 1994tik bost udal berri besterik ez dira eratu, eta bakarra XXI. mendean: Ziortza-Bolibar.

35 udalerri berrietatik, hamasei Bizkaian daude, bederatzina Gipuzkoan eta Nafarroan, eta bat Baxenabarren. Betiere bereizketa baten ondorioz sortutako udalez ari gara, ez elkarketaz sortutakoez. Bereizketa horietako asko desanexioak dira, baina badira zatiketaz ere, tamaina bertsuko udalak eman dituztenak. Leaburu-Gazteluk, esaterako, erdibitza erabaki zuen 1995ean; zazpi urte lehenago, hiru zatitan banatu zen Iruerrieta, Gipuzkoan ere bai.

Nafarroan, udal berri gehienak Iruñerriko zendeen zatiketaz jaio dira. Zendea esaten zaie Iruñea inguruan sortutako bost herri bilguneri (udal izaera dute): Zizurkoa, Oltzakoa, Galarrekoa, Izakoa eta Antsoaingoa. Azken hori ez da existitzen dagoeneko; 1991n, Antsoain eta Berriozarrek zendea utzi eta udal bilakatu ostean, geratu ziren gainerako herriek Berriobeiti eratzea erabaki zuten.

Bitxia da zendeetatik bereizi diren udal gehienak, behin sortuta, zendea bera baino biztanletsuago izan direla. Esaterako, askoz populazio handiagoa dute Barañainek eta Zizur Nagusiak euren jatorrizko udala den Zizurko Zendeak baino, hura ez baita 4.000 biztanle-ira iristen. Barañain, izan ere, zerrenda honetako udal populatuena da, Erandioren ostean. Aldea hain nabarmena ez bada ere, gauza bera gertatu zen Beriain eta Orkoien kasuetan.

Udala	Sorrera urtea	Lehen zer udaletan zegoen	Herrialdea	Biztanle kopurua
Berriatua	1983	Ondarroa	Bizkaia	1.200
Derio	1983	Bilbo	Bizkaia	6.200
Erandio	1983	Bilbo	Bizkaia	24.200
Loiu	1983	Bilbo	Bizkaia	2.400
Mendaro	1983	Elgoibar eta Mutriku	Gipuzkoa	2.000
Sondika	1983	Bilbo	Bizkaia	4.500
Zamudio	1983	Bilbo	Bizkaia	3.200
Barañain	1984	Zizurko Zendea	Nafarroa	21.500
Lasarte-Oria	1986	Hernani, Urnieta eta Andoain	Gipuzkoa	18.200
Astigarraga	1987	Donostia	Gipuzkoa	4.900
Forua	1987	Gernika-Lumo	Bizkaia	1.000
Kortezubi	1987	Gernika-Lumo	Bizkaia	400
Murueta	1987	Gernika-Lumo	Bizkaia	300
Nabarniz	1987	Gernika-Lumo	Bizkaia	250
Baliarrain	1988	Iruerrieta	Gipuzkoa	150
Ikaztegieta	1988	Iruerrieta	Gipuzkoa	450
Orendain	1988	Iruerrieta	Gipuzkoa	200
Altzaga	1990	Itsasondo	Gipuzkoa	150
Iurreta	1990	Durango	Bizkaia	3.800
Lekunberri	1990	Larraun	Nafarroa	1.500
Ajangiz	1991	Gernika-Lumo	Bizkaia	450
Alonsotegi	1991	Barakaldo	Bizkaia	2.800
Antsoain	1991	Antsoaingo Zendea	Nafarroa	11.000
Berriobeiti	1991	Antsoaingo Zendea	Nafarroa	6.000
Berriozar	1991	Antsoaingo Zendea	Nafarroa	9.500
Irurtzun	1991	Arakil	Nafarroa	2.300
Beriain	1992	Galarreko Zendea	Nafarroa	3.900
Orkoien	1992	Oltzako Zendea	Nafarroa	3.700
Zizur Nagusia	1992	Zizurko Zendea	Nafarroa	14.100
Arratzu	1993	Gernika	Bizkaia	400
Gaztelu	1995	Leaburu-Gaztelu	Gipuzkoa	150
Leaburu	1995	Leaburu-Gaztelu	Gipuzkoa	380
Zierbena	1995	Abanto-Zierbena	Bizkaia	1.500
Garrüze	1997	Donapaleu	Nafarroa Beherea	300
Ziortza-Bolibar	2004	Markina-Xemein	Bizkaia	450

foru arau berriaren aurkako helegitea dauka aurkeztuta Espainiako Auzitegi Gorenean.

Iñaki Lasagabaster EHUKo Administrazio Zuzenbide katedradunak bere iritzia eman digu arau horretaz: “Berez, ez zait txarto iruditzen halako arau bat ezartzea desanexio eskaerarik ez bada aurreikusten. Gainera, administrazioa

arrazionalizatzeko balio du. Beste kontu bat da martxan dagoen prozesu bat gelditzea, hori herritarren kontrako neurria litzateke. Aldundia jabetu da egoerak ezin duela honela jarraitu, eta adierazi du araudian moldaketak egingo dituela usansolotarren borondatea errespetatze aldera”. Zuzen dabil Lasagabaster. Jose Luis

DESANEXIOAK

Bilbaok ez ezik, EAJk eta Galdakaoko Udalak adierazi izan dute prest daudela Usansoloren segregazioa ekar lezakeen prozesu bat abiatzeko —erakundeen kasuan— eta babesteko —alderdiarenean—.

Prozesu horren lehen urratsa foru araua aldatzea litzateke, eta azkena herri galdeketa bat egitea. Horretarako entrenamendua aste honetan bertan izango dute usansolotarrek, UHk azaroaren 23rako antolatu duen erreferendumean. Galdera, hauxe: “Usansolo udalerria izatea nahi duzu?”.

Emaitzek ez dute balio juridikorik izango, baina bai politikoa. “Galdakaon, Bilbon eta Madrilén Usansoloren nahia zein den entzutea gura dugu”, dio Monika Menak. Ibon Uribe Galdakaoko alkateak esan du ez duela erreferenduma oztopatuko, baina babestu ere ez, prozedurak bestelakoa izan behar lukeelako. UHren eta Uriberen arteko ika-mikak zeresan ugari eman du azken askeotan, baina ez du ematen horrek Bizkaiko 113. udalerriaren sorrera oztopatuko duenik.

Bi hilabetez udal izan zen herria

Bizkaia 113.enera bidean, eta Gipuzkoan

Usansolo Herria plataforma eta Galdakaoko alkatea ez datoz bat prozedura bideratzeko moduari dagokioez, baina ez du ematen horrek Bizkaiko 113. udalerriaren sorrera oztopatuko duenik

89.aren jaiotza etenda. Ondo ezagunak dira Igeldon aurreko neguan gertatutakoak: galdeketa bidez gehiengoak segregazioaren alde bozkatu ondoren, Foru Aldundiak dekretuz agindu zuen Igeldoko udal berria eratzea, baina aurtengo otsailean EAEko Auzitegi Gorenak bertan behera utzi zuen dekretu hori, Donostiako Udalaren helegiteari men eginenez. Bi hilabetez udal izan ostean auzo izatera itzuli zen Igeldo, eta Itxas Aurre elkarte-kideak, hala nola herritar gehienak, atsekabez ari zaizkio orain epailearen behin betiko ebazpenari itxaroten.

Zergatik Igeldoren kasuan EAJk ez du Usansolorekiko agertu duen jarrera bera?, galdetu du publikoki Itxas Aurrek. Hona Sabin Etxearen erantzuna: “Usansolon eta Igeldon argi ikusten da bi eredu daudela. Bata, Gipuzkoako Aldundiak aurrera eramane duena, inposizioarena, BBN-Netan beren buruari emandako legeak ez errespetatuz eta Igeldori balio gabeko galdeketa batekin iruzur eginez. Eta bestea, EAJk Usansolon proposatzen duena: legearen barruan galdeketa bat egitea”. ■

